

Abenduak 2

**MINTZODROMOA**

18:00 | Agirre Jauregiko Ispiluen gelan

DEBA 2021eko ABENDUA

**EUSKERAZ  
BAGERA**

Abenduaren 3an *Euskararen Nazioarteko Eguna* dela eta, hainbat ekimenez osatutako egitaraua antolatu nahi dugu herrian, beste eragile batzuekin elkarlanean. Eta ekimen horien artean, **aurten Mintzodromoa izeneko saioa ere egin nahi dugu.**

**Mintzodromoak euskaraz jarduteko aukera eskaintzen du, hainbat gairen inguruan iritziak trukatzeko gunea baita. Adin eta profil ezberdineko herritarrak gonbidatu nahi ditugu saiora; euskaraz hitz egitea izango da bertan parte hartzeko baldintza bakarra.** Bakoitzak duen hizkuntza maila edozein dela ere, denok izango zarete ongi etorriak, eta aukera ezin hobea izango da euskaraz aritu eta beste herritar batzuekin harremanak sendotzeko.

Hortaz, lerro hauen bitartez, ekimen honetan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu. **Beharrezkoa izango da izena aurrez ematea.** Horretarako, idatzi mezua 635 70 43 10 telefono zenbakira, azaroaren 26a baino lehen. Animatu eta parte hartu! Eta azkar ibili izena ematen, tokirik gabe gera ez zaitezten.

**Mintzodromoa abenduaren 2an (osteguna) egingo da, 18:00etan, Agirre Jauregiko Ispiluen gelan. Bukaeran, guztiontzako luntxa izango da.**

**Zuhetza**  
MINTZ DEBA

euskara  
elkartea